


Euskal AEko eraikuntzako kostuak %0,2 igo ziren 2009ko maiatzean aurreko hilaren aldean

Azken hamabi hilabeteetan (2009ko maiatza, 2008koarekin alderatuta) eraikuntzaren kostuak % -0,3 gutxitu dira

2009ko maiatzean, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,2 igo zen, aurreko hilaren aldean, eta maiatzeko urte arteko tasa % -0,3 jaitsi zen, EUSTATen datuen arabera.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2009



(*)Gehikuntza maiatzako urte artekoa da
Iturria: EUSTAT

2009ko maiatzean, aurreko hilaren aldean, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); lehengaien kostuak, berriz, %+0,3 garestitu dira.

Maiatzean, hil arteko tasetan, Eraikuntza eta Obra Zibila azpisektoreek antzeko bilakaera izan zuten lehengaien kostuari dagokionez. Eraikuntzaren atalean %0,2ko igoera izan zen aurreko hilaren aldean, eta Obra Zibilaren atalean %0,6. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaeran badira zenbait ezberdintasun: Eraikuntzako lehengaien kostuak %0,7 hazi ziren; Obra zibilekoak, berriz, %-7,6 jaitsi.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenak ondokoak izan dira: Ura (%7,4), Ez-metalezko mineralak (%6,2), Altzarigintza (%3,4); Energia elektrikoa, eta gasa (%2,0). Aitzitik, urteko prezioetan (2009ko maiatza, 2008koaren aldean) murrizketak izan dituzte Petrolioa fintzearen (%-37,9), Metalurgiaren (%-21,6), Zurgintzaren (%-3,5) eta Material elektrikoaren (%-1,9) lehengaiak.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA

2009KO MAIATZA

GOIBURUAK	INDIZEA 2005= 100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	116,4	0,2	-0,3	-0,2
ERAIKINAK	116,8	0,2	1,0	-0,2
OBRA ZIBILA	114,8	0,5	-5,1	0,1
LEHENGAIEN KOSTUA	115,6	0,3	-1,1	-0,8
ERAIKINAK	116,2	0,2	0,7	-0,8
OBRA ZIBILA	113,2	0,6	-7,6	-0,7
LAN-ESKUAREN KOSTUA	119,0	0,0	2,1	2,1

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp